

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 6an hartutako erabakiaren laburpena: 2018an partaidetza-proiektuetarako diru-laguntzak emateko Gasteizko Udalaren deialdia arautuko duten berariazko oinarriak.

Lehenengoa: Deialdiaren xedea.

2018an zehar herritarrei irekita bideratzen diren partaidetza-prozesuetatik sortzen diren gastuei aurre egiten laguntzea, horien helburuak Udalaren ildo estrategikoekin bat egiten dutelarik.

Bigarrena: Aurrekontu-kreditua.

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak 2018ko udal aurrekontuetako 1822 9242 48014 partidako — herritarrentzako partaidetza-proiektuak—aurrekontu-kredituaren kontura joango dira —gehienez 20.500,00 eurokoa da horren zuzkidura—.

Hirugarrena: Eskatzaileak.

Jarduera-eremu Gasteizko udalerrria duten irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko nahiz entitateak.

Pertsona fisikoen kasuan, ezinbestekoa izango da gutxienez hiru adindunek osatutako kolektiboa izatea (berariazko eranskina).

Laugarrena: Aurkezteko epea.

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik eta 2018ko abenduaren 15era bitartean aurkeztu ahal izango dira proiektuak, edo kreditua agortu bitartean.

Bostgarrena. Oinarriak:

- Diru-Laguntzei buruzko Udal Ordenantza, 2005ko ekainaren 17an onartua eta ALHAOn 2006ko urtarrilaren 13an (5.zk) argitaratu dira.

Web orrian: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/17/16/1716.pdf>

- Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak 2017ko abenduaren 1eko erabakiaren bidez onetsiak; ALHAOn 2018ko urtarrilaren 22an (9.zk) argitaratu dira.

Web orrian: <http://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/68/27/76827.pdf>

Seigarrena: Tramitazioa.

Eskabidearekin batera, oinarri hauetan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira:

- Diru-laguntzaren eskabidea.

- Proiektua, gidoiaren arabera.

- IFZren fotokopia.

- Entitate eskatzaileen ibilbidearen laburpena.

- Banakoen kasuan, taldea edo kolektiboa osatzen duten pertsonen nortasun-agirien fotokopiak, eta "Kideen zerrenda eta ordezkariaren izendapena" eranskina.

Zazpigarrena: Balioespen-irizpideak.

- Antzemandako premien, finkatutako helburuen, proposatutako ekintzen eta egindako aurrekontuen arteko koherentzia: gehienez 24 puntu.

- Partaidetza-mailak: gehienez 10 puntu.

Kontsulta 2 puntu.

Eztabaida 2 puntu.

Proposamena 2 puntu.

Prozesuan erabakitakoa gauzatzea: 4 puntu.

- Azalpena, prozesua nola garatuko den, mugak eta joko-arauak barne, eta konpromisoen zehaztapena: gehienez 5 puntu.

- Jarraipena eta ebaluazioa: gehienez 5 puntu.

- Parte-hartzaileak: gehienez 14 puntu.

Entitate sustatzailerik kanpoko agenteen partaidetza egiaztatzen badu: gehienez 4 puntu.

Aniztasuna bilatzen du, jarrera eta diskurtso desberdinen arteko topaketa: gehienez 2 puntu.

Sareko lana: Hainbat entitateren artean aurkeztu da proiektua: gehienez 3 puntu.

- Elkarlan-ekintzaren bat egitea baren hartzen du: gehienez 5 puntu.

Dinamika parte-hartzaileak barne hartzen ditu: gehienez 12 puntu.

Mahai-inguruak, Word kafea, gogoeta-lantegiak, foroak, erakusketak...

- Komunikazio-plana: gehienez 10 puntu.

- Entitateak proiekturako jartzen dituen finantza-baliabideak, eta eskatutakoaren proportzioa, beste bitarteko batzuen aldean: gehienez 8 puntu.

Ehuneko10era arte: gehienez 2 puntu.

Ehuneko 20ra arte: gehienez 4 puntu.

Ehuneko 30era arte: gehienez 6 puntu.

Ehuneko 40ra arte: gehienez 8 puntu.

- Programatutako jardueretan euskararen erabilera bultzatzea: gehienez 2 puntu.

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea: gehienez 2 puntu.

Entitate eskatzaileak genero-ikuspegia barneko lanean eta bere egiturari txertatua edukitzea: gehienez puntu 1.

Datu bereiziak biltzea: puntu 1.

- Bizikidetza eta aniztasuna bultzatzea: gehienez 2 puntu.

Sartzen du prozesuan: Parte hartuko dutenak adin, genero, jatorri eta testuinguru sozial desberdinetakoak dira

- Eragin eta proiektzio soziala: gehienez 6 puntu.

Proposatutako ekintzek onura dakarkieten pertsona eta kolektiboak.

Zortzigarrena: Proiektu bakoitzeko gehieneko diru-laguntza.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan hiru mila eta bostehun eurotik (3.500,00 euro) gorakoa proiektu bakoitzeko —aurrekontuaren ehuneko 100era arte finantzatu ahal izango da—.

Bederatzigarrena: Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, aldez aurreko ordainketa gisa, deialdia ebatzi eta interesdunei jakinarazi ondoren, inongo bermerik jartzeko beharrik gabe.

Hamargarrena: Diru-laguntza justifikatzeko modua.

2018ko diru-laguntzen oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera.

Diru-laguntzaren justifikazioa aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, partaidetza-prozesua bukatzen denetik.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 6an.- Partaidetza eta Gizarte Etxeen Sailako Administrazio Burua, Marilo Movilla Rivas.